ATEGI

# Nazioarteko erosketak



Erosketa-prozesuan adituak gara eta gure bezeroen aurrerapena da gure xedea.

Gure helburua da gure bezeroei errentagarriagoak eta lehiakorragoak izaten laguntzea, dauden tokian daudela

Nazioarteko taldea dugu, guztira 35 espezialista baino gehiago mundu osoan (USA, Mexiko, Espainia, India, Txina, Vietnam eta Taiwan), erosketa integral bat eskaintzen duena eta bezeroaren beharretara pertsonalizatua

# GURE BALIOAK

**lankidetza**
300 enpresak eta enpresa-taldek baino gehiagok erabaki dute beren erosketen kudeaketa ATEGIN zentralizatzea, kostuak murrizteko eta beren enpresa arloko eraginkortasuna eta errentagarritasuna areagotzeko

**aurrerapena**
Gure bezeroen mozkinak maximizatzeak eta gure inguruan aberastasuna sortzeak mugitzen, motibatzen eta inplikatzen gaitu. Enpresa errentagarriak eta sendoak izaten laguntzea, eraginkorra da gure gizartean aurrerapen jasangarria (etika, gizarte, lan eta ingurumen arlokoa) sortzeko

**espezialistak**
Know how, profesionaltasuna, zorroztasuna, metodologia, taldea, esperientzia, etengabeko hobekuntza, etab...

ATEGIk kudeaketa espezializatua egiten du erosketa-familia bakoitzean (energia, garraioa, telekomunikazioak, etab.), bezero bakoitzaren beharretarako pertsonalizatzen du eta erosketa-prozesuaren zerbitzu osoa eskaintzen du

**gertutasuna**
Gertutasuna, entzute aktiboa eta elkarrekintza dira komunikazioaren oinarrizko osagaiak. Eta gure bezeroekiko kudeaketan, aukeraz betetako bidea da komunikazio ona. Harreman guztietan konfiantza funtsezkoa dela ere badakigu, horregatik saiatzen gara gure lana egiteko modua eta metodologia gardentasun osoz partekatzen

# ZERBITZUAK



### Aholkularitza

- Lehiarako kokapenaren diagnostiko pertsonalizatua egiten dugu
- Zure enpresarentzako erosketa-estrategiarik egokiena aztertzen dugu (kostuak murriztu, prozesuak hobetu, nazioartekotzea, etab.)
- Eraldaketa plana diseinatzen eta hedatzen dugu



### Erosketen Zentrala

- Erosketa irtenbidea pertsonalizatzen diogu bezero bakoitzari
- Erosketen kudeaketa bateratu eta zentralizatua egiten dugu
- Erosketa bolumenak pilatzen ditugu, beharrak koordinatuz
- Kontratazio eta zerbitzu baldintzak optimizatzen ditugu



### Erosketa zerbitzuak

- Proiektuak neurrira egiten ditugu
- Hornitzaileen prospekzioa, ikuskaritza eta ebaluazioa egiten dugu
- Negoziatu egiten dugu, kontratuak eta esleipenak kudeatzen ditugu
- Erosketa prozesua antolatzen dugu
- Gastuaren kontrola aztertzen dugu

## KATEGORIAK

# NAZIOARTEKO EROSKETAK

Enpresak inguru globalean arrakastaz integratzeko, nazioartekotze estrategietan beharrezkoa da erosketen kudeaketa negozioaren ikuspegi integralarekin egitea beharrezkoa da ere, ekipo anitzekin eta kultura anitzetako langileekin lana egin ahal izatea eta nazioarteko hornitzaileen eta kanpoko merkatuen egituraren eta kulturaren ezagutza sakona izatea..

Nazioartean erosketak prozesuekin hasten, garatzen eta kudeatzen laguntzen dizugu, zure enpresaren errentagarritasuna eta lehiakortasuna hobetzen jarraitzeko.

Diziplina anitzeko taldea dugu, esperientzia handikoa eta 35 aditu baino gehiago daude bertan. Taldea Europar Batasunean egoteaz gain, munduko kokapen estrategikoetan ere badago: Txina, India, Vietnam, USA eta Mexiko.

Gure zerbitzua behar zehatzen arabera modulatzen da; merkatuak aztertzen ditu, horniketa iturriak aukeratzen ditu, ekoizpenaren jarraipena eta kontrola egiten du eta bezeroaren neurrirako proiektuak hala eskatuz gero, beste banakako zerbitzu batzuk ere egiten dira.

Gure bezeroek eskatzen dituzten produktuen tipologia kudeatzen dugu. Bere bolumenaren arabera hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Moldeak eta trokelak.
- Osagai industrialak: forja, torlojuak, estanpazioa, galdaragintza, mekanizatuak, injekzio produktuak, azpimultzoak, eraikuntza eta fundizioko materiala...
- Kontsumo ondasunak eta banaketa: etxea, kirol ekipamendua, sustapen artikuluak...




**MERKATUEN PROSPEKZIOA ETA HORNIKETA ITURRIEN HAUTAKETA**

**1. Nazioarteko erosketetarako aholkularitza eta babesa:**

- Hornitzaile berrien prospekziorako aholkularitza: Txina, India, Vietnam, Taiwan, Tailandia...
- Hornitzaile xedeen agenda prestatzea, produktu familien arabera.

**2. RFQ: Prospektatu beharreko produktu familien espezifikazioak:**

- Eguneratutako planoak.
- Espezifikazio teknikoak.
- Erosketa-bolumenak definitu.

- Interesatutako **produktuen helburu prezioak.**

**3. Hornitzaileak identifikatu eta autatzea+erosketako terminoen negoziazioa:**

- Hornitzaileen auditoria eta homologazioa: ISA.
- Ordainketa terminoen negoziazioa eta kanbio-bermatzea.
- Ekoizpen prozesuaren definizioa eta jarraipena eta entrega-datak.
- Laginen balidazioa enpresaren aldetik eta ezarri beharreko ekintza zuzentzaileak definitzea.

**4. Prospektu bidaien diseinua eta planifikazioa:**

- **B**idaia-agendak prestatzea eta hornitzaile desberdinei bisita.
- Gure hango proiektu zuzendariak lagunduko dizu bidaia osoan zehar eta hornitzaileei egin beharreko bisitetan.
- Logistikaren kud**eaketa eta garraioa bidaian zehar.**

**5. Erosketa eskariaren jaulkipena:**

- Eskaria eta erosketako azken kopuruak baieztatzea.
- Proforma faktura prestatzea: PI.
- Ekoizpen prozesuaren banantzea eta entrega-datak.




**EKOIZPENAREN JARRAIPENA ETA KALITATEA ZIURTATZEA**

**1. Kalitate agiriaren definizioa:**

- Jarraibide kontrolaren azterketa eta dimentsio kritikoen definizioa.
- Hornitzaile xedeen agenda prestatzea, produktu familien arabera.
- Kalitate-ikuskapen taldearekin bilera, ikusi beharreko puntu kritikoak eta prestatu beharreko agiriak aztertzea.
- Kalitate sailari kontrolerako tresnak eskatzea.

**2. Entrega-daten jarraipena:**

- Bidalketen agenda astero eguneratzea.
- Telefono bidezko jarraipena hornitzaileekin, ekoizpen-prozesuaren egoerari buruz.
- Ekoizpen-prozesuaren **txostena eta oinarrizko mugarrien eta botila lepoen definizioa.**

**3. Kalitate ikuskapena:**

- Hornitzaileari ikustaldia eta kalitate-ikuskapena MIL-STD-105 arauak oinarri hartuta.
- Egindako eskariarentzako kopuruak eta PL zuzena egiaztatzea.
- Kalitatezko proba suntsitzaileak/ez suntsitzaileak egitea + estalduren lodiera neurtzea.
- Osaera kimikoaren azterketa eta materialen zehaztapena:
- PMI pistola
- Espektrometroa
- Kalitatearen txostena prestatzea, ikuskapen prozesuko argazkiekin.
- Aurreko eskarietako arazoak aztertzea**, arazo horiek konpondu zirela bermatzeko.**

**4. Ez adostasunen kudeaketa:**

- Aurkitutako ez adostasunen balorazioa.
- Ezarri beharreko ekintza zuzentzaileen definizioa.
- Ekintza zuzentzaileen ezarpenaren jarraipena eta jarraipenerako behar diren kontrol-tresnak.

**5. Kudeaketa logistikoa:**

- Edukiontzian merkantzia egiaztatu eta karga-txostena egiteaz gain, packaging materialak EBrako egokiak direla egiaztatzen da ere, Forwarder-arekin merkantzien irteera eta iritsiera datak ezartzen dira. ATEGIK zure garraioa optimizatzeko aukera ematen dizu lurrez, itsasoz eta airez, garraio hori gainerako bezeroentzat berme guztiekin egiten ditugun kudeaketei gehituz eta zure lehiakortasuna areagotuz.

KATEGORIA
GEHIAGO













# KONTAKTUA

Zortzi toki ezberdinetan kokaturiko nazioarteko taldea dugu, bezeroak behar duen lekuan zerbitzua eman ahal izateko



## Bulegoak

### Bulego zentralak

Parque Tecnológico Garaia
Edificio B, 3a planta
20500 Arrasate/Mondragón
Gipuzkoa/Guipúzcoa – España

T: +34 943 71 19 30
FAX: 943 77 31 01
comunicacion@ategi.com

Como llegar

### China, Shanghai

Ategi Trading (Shanghai) Co., Ltd.
Room D/F2,14F, East Ocean Center Phase II,
No. 618 Yan An East Road,
Huang Pu District,
Shanghai, 200001, China

T: 86 21 63410728/29/30

Como llegar

### China, Shenzhen

Room 20Cb-A1, 20F, Block B.
Bank of China Tower.
Caitian Road, Futian District,
518036, Shenzhen, China.

T: +86 75583752452,
F: +86 75583752453

Como llegar

### Taiwan

T: 0086 2163410729

### Vietnam

6th floor, Rolanno Business Center.
157 Vo Thi Sau St, Ward 6, Dist. 3, HCMC, Vietnam.

T: +84 838206034
F: +84 838207335
Cómo llegar

### India

F-89/8, 1ST & 2ND floor. Okhla Industrial Area.
Phase I. New Delhi-110020

T: +91 11 40649000,
F: +91 11 40649001
Cómo llegar

### USA

1401 New York Avenue, NW, Suite 1225
20005 Washington, D.C.
Estados Unidos

T: +1 202-463-7877
F +1 202-861-4784
mpeck@mapagroup.net

Como llegar

### México

Ejército Nacional 678, Oficina 201
Colonia Polanco
C. P. 11550 MEXICO DF

T: 3097-5811

Como llegar